

SUKALDEAN

SUKALDARITZARI BURUZ HITZ EGITEKO HIZTEGI ZABALA DU EUSKARAK. EZAGUTZEN AL DITUZUE HITZOK?

1.- OSATU ESALDI HAUEK GOIAN JARRITAKO AUKERAK BALIATUZ. LIBURU-HIZTEGIA
EDOTA ELHUYARREKO ONLINE HIZTEGIA ERABIL DEZAKEZU:

https://hiztegiak.elhuyar.eus/eu_es.

NAHASTU	EGOSI	GARBITZEA	IRABIATU	ERRE
IRAKIN	TXIKITU	FRIJITU	XUKATU	ZURITZEA

- ❖ Patatak egosi ahal izateko, lehenik eta behin, eltze batean ura _____ behar dugu.
- ❖ Oso garrantzitsua da sukaldatu aurretik barazkiak urarekin ondo _____.
- ❖ Pasta entsalada egiteko makarroi batzuk _____ behar dira.
- ❖ Arroz esnea egiteko, bero-bero dagoen esnetan bota behar dugu arroza, baina, nahasketa etengabe mugitu behar dugu koilara batez bueltatxoak ematen gure postrea _____ ez dadin.
- ❖ Patata tortila egiteko ezinbesteko urratsa da patatak _____.
- ❖ Arraina arrautza-irinetan pasatu ondoren, olio bero-beroa duen zartaginean _____ dugu.
- ❖ Katilu batean gatza, piperbeltza, zukua eta ozpina _____ ditugu.
- ❖ Etxean egindako nutella hau egiteko, urrak ondo-ondo _____ behar dira.
- ❖ Esnea, marrubiak, platanoa eta azukrea _____ eta prest duzu edari goxo-goxoa!
- ❖ Makarroiak egosi ostean ura kendu eta ongi _____.